MIC Edizioak

SANTURTZI JAIETAN

EL CARMEN 2023

UZTAILAK 14
23 JULIO

Santurtzin eraso matxistarik EZ!

En Santurtzi ¡NO a las agresiones machistas!

Udaltzaingoa
Policía Municipal
944 61 34 34
24h

Emakume eta Berdintasun Zerbitzua
Servicio Mujer e Igualdad
944 20 58 00 (ext.321)

ALKOHOLAREN KONTSUMOARI LOTUTAKO ARRISKUAK PREBENITZEKO ETA MURRIZTEKO KANPAINA

CAMPAÑA PARA LA PREVENCIÓN Y REDUCCIÓN DE RIESGOS ASOCIADOS AL CONSUMO DE ALCOHOL

Larunbata-Sábado 15:

Substantzien gehiegizko kontsumoari lotutako arriskuari buruz informatzeko eta kontzientziatzeko informazio-gunea / Espacio para la información y concienciación en torno al riesgo asociado al abuso de los consumos de sustancias

21:30- 00:30 Santurtziko parkea/ Parque de Santurtzi.

Larunbata-Sábado 15:

Kaleko esku-hartzea substantzien gehiegizko kontsumoari lotutako arriskuari buruz informatzeko eta kontzientziatzeko / Intervención de calle para la información y concienciación en torno al riesgo asociado al abuso de los consumos de sustancias

21:30-00:30 Erdialdea, pantalanak/ Zona centro, pantalanes

AGURRA SALUDA

Gora Karmengo Jaiak! Gora Santurtzi

Karmele Tubilla Artetxe-Santurtziko Alkatea

Sardina-usaina gure herria hartzen hasia da, gertu daude helduen zein umeen kuadrillen probak, arratsalde gozoak eta kontzertuen gau biziak. Prest dugu arrantzale-jantzia, eta nola ez, lepoan jartzeko zapia ondo lisatuta. Ate joka ditugu hainbeste maite eta gozatzen ditugun jaiak, Karmengo jaiak.

Hain gurea den tradizioa, santurtziarrok hain sustraituta duguna da uztailaren bueltan ospatzen duguna, Santurtziko jaiak gure nortasunaren ikurra direlako, gure kolore morearen marka eta itsasoarekin dugun loturaren ospakizuna.

10 jai-egun oparo ditugu zain, herritar orok gozatzekoak, etxeko gazteenek eta nagusienek. Den-dena, urtero legez, ehun lagunetik gorako talde handiak egiten duen lanari esker, herriko hainbat elkarte eta jai-batzorde jotake ibili dira herriko jaiak prestatzen. Jai alaiak, toleranteak, EZETZA EZETZA DELA ozen aldarrikatzen dutenak, beti gogoan izan beharreko leloa da eta.

Oraingoa etxean ditugun soineko dotoreenak janzteko unea da, kuadrillen kamisetak armairutik ateratzeko unea, sardinera- eta arrantzale-arropak harro erakustekoa, zapia lepoan lotzekoa, eta batez ere, familia eta lagunekin gure jaiak gozatzeko momentua. Bizi ezazue gure herria, gozatu Santurtzi. Gora Santurtziko Jaiak!!

Ya huele a sardinas asadas entre nuestras calles, a esas tardes divertidas de pruebas de cuadrillas tanto de mayores como de txikis, a noches de conciertos y a ponernos nuestro traje de arrantzal, sin olvidarnos nunca del pañuelo al cuello. Ya llegan las fiestas que tanto disfrutamos y a las que tanto cariño tenemos, las fiestas de El Carmen.

Esta tradición que tanto nos caracteriza y que cuenta con un gran arraigo entre los y las santurtziarras es lo que con todo el respeto continuamos celebrando, porque nuestras fiestas son seña de identidad de lo que nos representa, de nuestro color morado y de nuestra unión a la mar.

Nos esperan 10 días cargados de actividades para todo el pueblo desde los más txikis de nuestras casas a los más mayores y todo gracias, como cada año, a la colaboración y trabajo conjunto de más de un centenar de personas entre las diferentes asociaciones de nuestro municipio y la Comisión de fiestas. Unas fiestas diversas, tolerantes, y donde el No es No; que nunca se olvide.

Ahora es el momento de ponernos nuestras mejores galas, sacar del armario esas camisetas de cuadrillas, esos trajes de sardinera o arrantzal, amarrar el pañuelo al cuello y, sobre todo, de disfrutar con las amistades y la familia de nuestras esperadas fiestas. Disfrutar de nuestro pueblo, de Santurtzi. Gora Santurtziko Jaiak!!!!!!

GAUEZ ETXERA LAGUNDUTA JOATEKO ZERBITZUA

Ordutegia: Goizaldeko 02:00etatik 06:00etara

Eskaerak: Erdigunea, Olatuen parkean

SERVICIO DE ACOMPAÑAMIENTO NOCTURNO

Horario: de 02:00 a 06:00 de la madrugada

Peticiones: Centro, en el Parque de las Olas

ALBA ORTEGA Superbebientes

EMAKUMEZKO KUADRILLAKIDERIK ONENA

Alba Ortega naiz eta 23 urte ditut. Aurten medikuntza ikasketak bukatuko ditut UPV/EHUn eta duela hilabete batzuk espezialitate batera sartzeko azterketa prestatzen nabil; hortaz, aspaldi honetan nahiko denbora gutxi dut, baina, gogo handiz nago Karmengo jaien zain.

Nire ustez, neska xume, dibertigarri eta arduratsua naiz, baina trakets samarra, iazko probetan ikusi zenuten bezala. Aurten hainbestetan ez jaustea espero dut!

Kontua disfrutatzea eta ondo pasatzea denean, edozertarako nago prest kuadrillakideekin batera, oso gustuko baitugu parrandan ibili eta planak egitea. Aurten hirugarren urtez hartuko dugu parte Superbebientes kuadrillan, eta gerra emateko geratzen zaizkigunak! 14 neska gara, oso desberdinak, baina gure artean giro ona dago eta oso ondo pasatzen dugu elkarrekin, ez nituzke ezeren truke aldatuko!

Iazko jaietan kuadrillakiderik onena neu aukeratu izana ezustekoa izan zen; hasieran pixka bat estutu nintzen, baina unea iristen ari zaidala, zirraragarria iruditzen zait, bizitza osoan gogoratu eta kontatzeko kapitulu bat izango da. Beraz, badakizue, hemen nago beste urte batez dena emateko prest!

Mi nombre es Alba Ortega y tengo 23 años. Este año termino mis estudios de medicina en la UPV y desde hace unos meses también estoy preparándome el examen para acceder a una especialidad, así que últimamente tengo bastante poco tiempo libre, pero, aun así, espero estas fiestas del Carmen con muchas ganas.

Me considero una chica sencilla, divertida y responsable, aunque un poco torpe como ya se vio en las pruebas del año pasado, ¡espero no caerme tanto este año!

Cuando se trata de disfrutar y pasarlo bien, me apunto a todo con mi cuadrilla, nos encanta salir de fiesta y hacer planes. Este año es el tercero que participamos como Superbebientes, ¡y los que nos quedan de dar guerra! Somos 14 chicas muy diferentes, pero entre nosotras nos entendemos y nos lo pasamos genial juntas, ¡no las cambiaría por nada!

Que me eligieran cuadrillera de las fiestas el año pasado fue toda una sorpresa, en principio me sentí un poco abrumada, pero ahora que se acerca el momento me parece algo emocionante, será un capítulo de mi vida para recordar y contar. Aquí me tenéis un año más, dispuesta a darlo todo.

Eutsi gogor OIER MELSIO

GIZONEZKO KUADRILLAKIDERIK ONENA

Oier naiz, 21 urteko gaztea. Ume-umetatik irakaskuntza izan dut gogoko, eta horregatik nabil Lehen Hezkuntzako ikasketak egiten. Aspaldi, 7 urtekoa nintzela, dantza-mundua ezagutu nuen, eta 16 urte nituenerako dantza-irakasle hasi nintzen. Duela 2 urte gaur egun nire egitasmo nagusiari ekin nion buru-belarri, Eclipse dantza-taldeari, eta hor, dantzaren bitartez, Santurtziko familia askok ikasi eta balioak zabaldu egiten dituzte.

Kuadrillen munduan duela 6 urte hasi nintzen, "Eutsi Gogor" kuadrillan hain zuzen. 18 gogorkidek oso abegikor hartu ninduten, naizen moduan agertzen utzi ninduten, uneoro ikasten eta unea gozatzen. Egia esan, kuadrillan hasi nintzenean ez nekien zer ekarriko zidan, baina barruan zaudenean ez duzu hortik kanpora atera nahi, benetan. Azken batean, lagun batek esan zidan bezala: Hemen gertatzen dena ez da inon gertatzen.

Kuadrilletan "Zunbero" izenaz ezagutzen naute, baina "Zunbao" ere esaten didate. Abesti bat entzute hutsarekin, edozein, nire gorputza berez hasten da dantzan. Izan ere, horixe da kuadrilletan egin dudana batez ere: dantzatu nonahi desorduetan, txantxetan ibili, jendea ezagutu eta egun osoa barreka eman. Egia esan, espero dut datozen urte luzeetan horrelaxe jarraitzea. Iaz Gorka saria jaso nuen, itzela izan zen, Gizonezko Kuadrillakiderik onena izatea gauza handia da eta, ez kontu materialengatik, adierazten duenagatik baizik. Asko hunkitzen nau hainbeste kuadrillekideren artean nigan zerbait ikusi izanak eta kideek nire alde bozkatu izanak. Beraz, berdin jarraituko dut, etengabe barreka eta ametsean, hegoek eramaten nauten tokira abiatuko naiz, eta batez ere, garrantzitsuena, ozen eta harro esango dut orain arte aldarrikatu dudana, herrixka more eder honetakoa naizela eta orain arte dantzatutakoa hemendik aurrera ere dantzatzeko prest.

Mi nombre es Oier y tengo 21 años. Desde que era muy pequeño me encanta el mundo de la docencia y eso me ha llevado a estudiar Lehen Hezkuntza. Por otra parte, a mis 7 años me adentré en el mundo del baile y a los 16 empecé como profesor. Hace exactamente 2 años me sumergí en el que hasta ahora es en proyecto de mi vida, Eclipse Dantza taldea, donde, a través del baile, muchas de las familias de Santurtzi aprenden y difunden valores muy necesarios.

Mi camino en el mundo de cuadrillas empezó hace 6 años, con Eutsi Gogor, donde 18 gogorinas me acogieron dejándome ser yo, aprendiendo y disfrutando de cada momento. Sinceramente, al entrar no sabía lo que iba a conllevar, pero una vez estás dentro del movimiento cuadrillero no quieres salir, te lo aseguro. Porque si, como dijo bien alto un amigo: Lo que pasa aquí no pasa en ningún lado.

En cuadrillas se me conoce como el Zumbero, y también como el Zumbao. Es sonar cualquier canción y mi cuerpo empezar a bailar. Y en eso se puede resumir mi paso por cuadrillas: bailar a deshoras en todas partes, hacer bromas, conocer gente y no parar de reír; y espero que siga siendo así por muchos años más. Fue increíble cuando el año pasado recibí el GORKA a mejor cuadrillero, creo que es un título muy importante, no por lo material, sino por lo sentimental. Seguiré así, sin parar de soñar y de reír, iré donde me lleven mis alas, y sobre todo, y muy importante, seguiré diciendo con orgullo que soy de esta bonita aldea morada, sin que nadie me quite "lo bailao".

TA NIRI ZER!?

KUADRILLARIK ONENA, 2022

Kide-kopurua:
21

Nola sortu zen kuadrilla?
Beti hartu dugu parte Karmengo jaietan, txikitatik. Baina gero eta pertsona gehiago ginen, eta lehengo kuadrillak alde batera uztea, eta parkean biltzen ginen gazte guztien artean beste bat osatzea erabaki genuen.

Nola sortu zen kuadrillaren izena?
Izena oso adierazgarria da. Oso erraza da, guri dena bost axola zaigu eta ez gara ezerekin ere larritzen. Beti ibiltzen gara azken unean dena aurkezten eta oso lasai. Izan ere, azken ordura arte itxaron dugu elkarrizketa hau egiteko. Eta are gehiago, honen zitalak izan garenez, jai batzordeak ohartarazi behar izan digu aurten ez geundela izena emanda.

Zein auzotakoak zarete?
Santurtziko auzo guzti edo ia guztietakoak garela esan genezake: Santurtzi-erdigunea, Mamariga, Kabiezes, Mahastiak, Bullón, Txitxarra, Sardinera... Buenavistako (Portugalete) kide bi, Uriosteko (Ortuella) bat eta Bagatzako (Barakaldo) beste bat ere badira gure artean.

Noiztik hartzen duzue parte jaietan?
"TaNiriZer!? kuadrillaren izenean 2012tik. Gure kuadrillako batzuek bizitza osoa daramate parte hartzen, 7 edo 8 urte zituztenetik.

Ohiko lagun-taldea zarete edo jaietarako baino ez zarete elkartzen?
Ohikoak ginen TaNiriZer!? kuadrilla osatu aurretik, eta horrela segitzen eta segituko dugu. Bestela ezin izango ginateke kuadrilla izan. Institutu edo eskolaz kanpoko jarduera garaiko lagunak gara gehienak. Beraz, jaietan elkartzeko kontua oso aitzakia ona da zorakerietan ibiltzeko, urte osoan oso zintzoak gara-eta.

Zer duzue gustukoen jaietan?
Kaleetan sortzen den giroa, goizez zein gauez. Kuadrillekiko giroa, probak, eta, batez ere, kuadrillen arteko afaria. Gero, hainbeste denbora daraman kuadrilla garenez eta hain gazteak izanik (25 urte besterik ez dugu), ez dugu batzordeak proposatzen dizkigun probetan parte hartu gabeko jairik ulertzen.

MEJOR CUADRILLA, 2022

Nº de componentes:
21

¿Cómo surgió la cuadrilla?
Siempre hemos participado en fiestas del Carmen, desde bien pequeños. Pero cada vez éramos más y más personas y decidimos dejar de lado las primeras cuadrillas que formamos y formar esta entre todos los chavales que nos reuníamos en el parque.

¿Cómo surgió el nombre de la cuadrilla?
El nombre es muy representativo. Pues es bien sencillo, nos la suda absolutamente todo y no nos agobiamos por nada. Siempre entregamos todo a última hora y bien relajados. De hecho, hemos esperado hasta última hora para hacer esta entrevista. Y es más, hemos sido tan canallas que la comisión nos ha tenido que avisar de que este año no estábamos apuntados.

¿De qué barrio sois?
Podríamos decir que tocamos todos o casi todos los barrios de Santurtzi, hay gente de Santurtzi-Centro, Mamariga, Kabiezes, Las Viñas, Bullón, La Txitxarra, La Sardinera... También tenemos dos integrantes de Buenavista (Portugalete), uno de Urioste (Ortuella) y otro de Bagatza (Barakaldo).
¿Desde cuándo participáis en fiestas?
Como cuadrilla "TaNiriZer!?" desde el 2012. También hay gente dentro de la kuadrila que lleva participando casi toda la vida, desde que tiene 7 u 8 años.

¿Sois una cuadrilla habitual o solo os juntáis para fiestas?
Hemos sido habituales antes de formar TaNiriZer!?, seguimos siéndolo y seguiremos siéndolo. Si no, no podríamos hacernos llamar cuadrilla. También es verdad que esto es así porque la mayoría somos amigos del instituto o de actividades extraescolares. Entonces, lo de juntarnos en fiestas es una buena excusa para hacer un poco el gamba, ya que durante el año nos portamos muy bien (guiño, guiño).

¿Qué es lo que más os gusta de fiestas?
El ambiente que se genera en las calles tanto de día como de noche. El ambiente con las cuadrillas, las pruebas, y sobre todo la cena de cuadrillas. Luego, al ser una cuadrilla que lleva tanto tiempo y siendo tan jóvenes (tan solo tenemos 25 palos) no concebimos unas fiestas sin la participación en las pruebas que la comisión nos propone.

Zer aldatuko zenukete jaietan?
Gure jaietara giro txarra sortzera etortzen diren pertsona horiek guztiak aldatuko genituzke, eta Mentxuren ordez gure "Pakita" jarriko genuke; izan ere, iazko kuadrilla-mugimenduaren protagonista izan zen eta bere lekua merezi du jaietan. Karkarkar, broma da.

Ekarpenak:
Zenbait kolektibori ikusgarritasun handiagoa emango liokeen jarduera gehiago sor litezke, gure jaiak askotarikoak eta pluralagoak izateko.

Zergatik izan zineten kuadrillarik onena zuen ustez?
Bada, boto gehien jaso genuenak izan ginelako, beste barik. Antza denez, kuadrillek oso gustuko izan zuten iaz proposatu genien jolasa eta horrek ekarri omen zizkigun boto gehiago.

Nola ikusten dituzue aurtengo jaiak?
Bada, beti bezala, sutan. Beti aurreikusten ditugu ilusio eta gogo handiz. Ezer gutxi behar dugu ondo pasatzeko; beraz, jaiak izugarri gustuko ditugu, behar duguna baino gehiago ematen digutelako ondo pasatzeko.

¿Qué cambiaríais de las fiestas?
Cambiaríamos a todas esas personas que vienen a las jaias a crear malos rollos y cambiaríamos a la Mentxu por nuestra "Pakita", que el año pasado fue protagonista del movimiento cuadrillero y se merece un hueco en las fiestas. Jajajajajaja, es broma.

Aportaciones:
Se podrían crear nuevas actividades para dar más visibilidad a determinados colectivos para que nuestras jaias sean más diversas y plurales.

¿Por qué creéis que habéis salido mejor cuadrilla?
Pues porque hemos sido los que más votos hemos recibido, ni más ni menos. Se ve que a las kuadrillas les gustó mucho el juego que les propusimos el año pasado y eso ha sido al parecer lo que ha hecho que recibamos más votos que el resto.

¿Cómo veis las fiestas de este año?
Pues como siempre, a fuego. Siempre las vemos con ilusión y con muchas ganas. Somos una kuadrilla que se lo pasa muy bien con poco, así que las fiestas nos encantan porque nos dan más de lo que necesitamos para pasarlo bien.

AKERBEKTZ

AKERBELTZ KUADRILLAREN 15. URTEURRENA:

Gezurra dirudi hainbeste urte pasatu izana 5 lagunek Karmengo jaietan Akerbeltz kuadrillaren izenean parte hartzea erabaki genuenetik. Mundu-pandemia bat ere izan dugu, guztioi jaietako bi urte "lapurtu" zizkiguna.
Urte horietan guztietan, asko izan dira Akerbeltzeko kide izan direnak, denak kontu komun batekin: ondo pasatzeko, disfrutatzeko eta besteak pozteko gogoa. Horiei guztiei esker bete ahal izan ditugu 15 urte.
Gure ustez, aitzindariak izan gara kolore bat baino gehiagoko kamisetak erabiltzen, bai eta kolore horiek gure gainontzeko janzkietara eramaten ere (gonak eta zapi beltzak sekulakoak dira!), duela 15 urte hain ikusita ez baitzeuden; izan ere, gorriak oso ondo jotzen du beltzarekin eta hain ondo ematen du...
Ez gara sari ugari jaso duen kuadrilla, ezta urrik eman ere, eta agian zerikusia du azken unera arte itxaroten dugula dena prestatzeko, inprobisazioa dugu gustuko eta batzuetan berandu heltzen gara probaren batera... Hala ere, ditugun Gorka gutxi horietako bat jasotzera joan ginenean esan genuen bezala, gure nortasun-ezaugarri bat Karmenetan parte hartzea izan da beti, "kuadrilla-mugimenduarekin" batera gozatuz, herriari kolorea eta alaitasuna emateko ametsetako 10 egun madarikatu horietan, eta jai hauek direnak bihurtzeko: Euskal Herriko Jai Onenak!!! (esan behar zen eta esan egin da).

15º ANIVERSARIO CUADRILLA AKERBELTZ:

Parece mentira que ya hayan pasado tantos años desde que un grupo de 5 amigos decidiera participar en las fiestas del Carmen bajo el nombre de Akerbeltz. Por pasar, ha pasado hasta una pandemia mundial que nos "robó" dos años de jaias a todos.
Durante todos estos años, muchas han sido las personas que han formado parte en algún momento de Akerbeltz, todas con algo en común: las ganas de divertirse, disfrutar y hacer disfrutar a los demás. Gracias a todas ellas hemos podido llegar a los 15 años.
Nos consideramos pioneros en introducir camisetas de más de un color, así como de extender dichos colores al resto de prendas del vestuario (¡las faldas y pañuelos negros son un puntazo!), algo que hace 15 años no era tan visto y es que el rojo y negro combina estupendamente y sienta tan bien...
No somos una cuadrilla con un gran palmarés, ni mucho menos, y quizá tenga algo que ver el que dejamos los preparativos para última hora, nos gusta improvisar e incluso solemos llegar tarde a alguna que otra prueba... Sin embargo, como dijimos una vez al recoger uno de los pocos Gorkas que tenemos, nuestra seña de identidad siempre ha sido participar en el Carmen disfrutando junto al "movimiento cuadrillero" para dar color y alegría al pueblo durante esos malditos 10 días de ensueño y hacer de estas fiestas lo que son: ¡¡¡Las mejores Fiestas de Euskal Herria!!! (se tenía que decir y se dijo).



OMENALDIA-HOMENAJE

GAZTEAK FÚTBOL CLUB

50.URTEURRENA-50 ANIVERSARIO

Uztailak 14 Julio 13:00

Santurtziko Parke Nagusian-Parque Central de Santurtzi

70eko hamarkadaren hasieran, Dionisio Urtiaga Etxebarria Kabiezesko San Pedro parrokiako apaizak, auzoko gazteekin batera, futbol-txapelketak antolatzea pentsatu zuen, Kabiezesko gazteek gustukoen zuten kirolean, futbolean, jokatzeko aukera izan zezaten. Burutu zen lehen Txapelketa arrakastatsua izan zen eta, horregatik, futbol talde bat federatzeko tramiteak hastea erabaki zen.
Hasiera batean, klubaren izena Juventus bezala tramitatzen saiatu ziren, baina BFFk ez zuen izen hori onartu, bazegoelako izen hori zuen klub bat (Italiako Juve). Orduan, izena euskarara itzulita jartzea erabaki zuten (Gazteak). Izen hori onartu egin zuten eta 1973ko apirilaren 1ean Gazteak Club de Fútbol izeneko klub berria federatu zen.
Urte batzuk borrokan eman ondoren, 1979-80 denboraldian Gazteak C.F.k bere lehen igoera lortu zuen Lehen Erregionalera. Ordutik aurrera, igoera eta jaitsiera ugari izan dira klub honen historian, eta, gaur egun, Lehen Erregionalean dago, baina harrobi handi bat du atzean: 13 talde kategoria desberdinetan, benjamin mailatik hasi eta erregional mailaraino, eta futbol-eskola bat.
Berrogeita hamar urteko historian izandako lorpenik garrantzitsuenen artean, 1982-83 denboraldian lortu zuten Bizkaiko txapeldun titulua nabarmendu daiteke, eta lau urte geroago Gazte Mailako bigarren mailako taldeak berriro lortu zuen. Era berean, 2002-2003 denboraldian, talde guztiek, kadeteek izan ezik, mailaz igotzea lortu zuten.
Kabiezes auzoan eta Santurtzin zaletasuna sortzen eta motxilak ilusioz betetzen jarraituko duen kluba.

Corría el principio de los años 70, cuando el cura de la parroquia de San Pedro de Kabiezes, D. Dionisio Urtiaga Etxebarria, juntamente con jóvenes del barrio, pensaron en organizar torneos de fútbol, para que la juventud de Kabiezes, pudiera jugar al deporte que más les gustaba, el fútbol. El primer Torneo que se llevó a cabo fue un completo éxito y por ello, se decidió comenzar los trámites para federar un equipo de futbol.
En primera instancia se intentó tramitar el nombre del club como Juventus, pero la FVF, no aceptó esta denominación debido a que ya existía un club con ese nombre, (la Juve italiana), entonces optaron por poner el nombre traducido al euskera (Gazteak). Este nombre sí fue aceptado y el 1 de abril de 1973 se federó el nuevo club denominado Gazteak Club de Fútbol.
Tras varios años luchando, en la temporada 1979-80 el Gazteak C.F. consiguió su primer ascenso a Primera Regional. A partir de entonces un vaivén de ascensos y descensos han caracterizado la historia de este club, encontrándose actualmente en Primera Regional, pero con una gran cantera a sus espaldas; con 13 equipos en las diferentes categorías desde benjamín hasta regional, además de una escuela de fútbol.
Como logros más importantes a lo largo de sus cincuenta años de historia se puede resaltar el título de campeones de Bizkaia que lo obtuvieron en la temporada de 1982-83 y cuatro años más tarde, el equipo de segunda Juvenil lo volvió a conseguir. Así mismo, en la temporada 2002-2003, todos los equipos, a excepción del cadete, consiguieron el ascenso de categoría.
Un club que continuará creando afición y llenando mochilas de ilusión en el barrio de Kabiezes y en el pueblo de Santurtzi.

OMENALDIA-HOMENAJE

DINAMO SAN JUAN FÚTBOL CLUB

50.URTEURRENA-50 ANIVERSARIO

Uztailak 14 Julio 13:00

Santurtziko Parke Nagusian-Parque Central de Santurtzi

Jose Alvarez "Pepe", futbolzalea eta filosofiazalea, **Dinamo** taldearen lehenengo entrenatzailea izan zen. Zehazten zaila den adina izanik, etengabeko bilakaera duen pertsonatzat har daiteke.

Taldeari **Dinamo** izena jarri zion, sobietar mundua miresten baitzuen. Zelairik ez zutenez, Santurtzi eta Zierbena artean zegoen "negro humon", Portugaleteko Santa Maria ikastetxean edo Barakaldoko Lasesarre zelaietan entrenatzen zuten, bai-eta Ereagako hondartzan ere.

Gogoan du hasieran berak erositako kamiseta horiak erabiltzen zituztela. Partida bakoitzaren ostean, garai hartan modan zeuden Jariguay batzuk hartzera gonbidatzen zituen mutilak.

Lehenengo taldean zeudela, kamiseta zuria erabiltzen hasi ziren, Europa osoan hainbeste lorpen zituen eta berak gogoko zuen Real Madrid C. F. taldeak bezala. Erakunde zuriko presidenteak berak, gutun baten bidez egindako eskaera bati erantzunez, garai hartako 5.000 pezeta eman zizkion Dinamori.

Federatutako debuta S.D. Arbuyoko gazteen kontra izan zen, non aurrelari oso handia baitzegoen, Andoni Goikoetxea Olaskoaga.

Jose duela hogeita hamar urte Gasteizera joan zen lanera, eta han ere ez zion entrenatzeari utzi. Hirutan lortu zuen igoera Ariznabarra Kirol Taldearekin.

CLUB DEPORTIVO ALEGRÍA taldeko koordinatzailea izan zen (goitik behera eraldatu zuena) eta, gero, **Euskal Selekzioko** beheko mailetako gizonezkoen eta emakumezkoen selekzioetan aritu zen buru-belarri. Bertan, Iker Muniain, Gaizka Toquero eta lehen mailako beste jokalari batzuk ezagutu zituen.

Bere kutunak Carlos Alba eta Vidal ziren, futboleko bi handi. Carlosek motibatzaile handitzat jotzen du Jose.

Jokalari horiek beste jokalari batzuei transmititu zizkieten bizi-irakaspenak, hala nola Alberto Lozanori, gaur egungo **Dinamo B** taldeko entrenatzaileari. Jose Alvarez - Carlos Alba - Alberto Lozano ...

Eta historiak jarraitzen du. Grinatik.

Jose Alvarezek elkartasun-izaera nabarmena duen klub bat sortu eta irudikatu zuen, non garrantzitsuena pertsonak eta haien emozioak baitira. Mila esker hainbeste emateagatik.

Jose Álvarez "Pepe" fue el primer entrenador del **Dinamo**, amante del fútbol y la filosofía con una edad indeterminada se le puede considerar una persona joven en constante evolución.

Bautizó con **Dinamo** al club por su admiración al mundo soviético. Como no disponían de campo propio, entrenaban en el negro humo situado entre Santurtzi y Zierbena, en el colegio Santa María de Portugalete, en las campas de Lasesarre de Barakaldo incluso en la playa de Ereaga.

Recuerda sus inicios con unas camisetas amarillas que compró de su propio bolsillo. Después de cada partido con los chicos los invitaba a unos Jariguays que tanto estaban de moda en aquella época.

Ya con el primer equipo, el equipaje era blanco como el de el que era su Real Madrid C.F. que tantos éxitos cosechaba por toda Europa. El mismísimo presidente de la entidad blanca a demanda de unas equipaciones vía carta escrita donó al Dinamo 5.000 pesetas de la época .

El debut federado fue contra la S.D. Arbuyo juvenil el cual contaba en sus filas con un delantero muy corpulento. Un tal: Andoni Goikoetxea Olaskoaga.

Jose por trabajo se marchó hace ya treinta años a Gasteiz donde nunca dejó de entrenar. Consiguió tres ascensos con el Club Deportivo Ariznabarra .

Fue coordinador del CLUB DEPORTIVO ALEGRÍA (el cual transformó radicalmente) y posteriormente se dedicó de lleno a las selecciones masculina y femenina de las categorías inferiores de la **Euskal Selekzioa** donde coincidió con Iker Muniain, Gaizka Toquero entre otros y otras jugadoras de primer nivel .

Su gran debilidad fueron Carlos Alba y Vidal dos leyendas del club. Carlos describe a Jose como un gran motivador. Jugadores que transmitieron sus enseñanzas vitales a otros jugadores como Alberto Lozano leyenda y actual entrenador del **Dinamo** B. Jose Álvarez - Carlos Alba - Alberto Lozano ...

Y la historia continúa. Desde la pasión.

Jose Álvarez creó e imaginó un club con un marcado carácter solidario en el que lo primero son las personas y sus emociones.

Gracias, por tanto.

ORQUESTA LA PASARELA

UZTAILAK 14 JULIO

23:00

Lekua/Lugar: Arrantza Portua/Puerto Pesquero

PRO GRA MA ZIOA

BIZI EZAZU GAU MAGIKO BAT LA PASARELA ORKESTRAREN ESKUTIK

LA PASARELA orkestra Santurtzira helduko da ikus-entzuleek gau magikoa izan dezaten bere ikuskizun bikainari eta errepertorio zabalari esker. Ikuskizun honetan dibertsioa bermatuta dago.

VIVE UNA NOCHE MÁGICA JUNTO A LA ORQUESTA LA PASARELA

Orquesta LA PASARELA llega a Santurtzi para hacer vibrar al público y pasar una noche mágica gracias a su gran espectáculo y su amplio repertorio con el que tienes garantizada una noche de éxito y de diversión. Un show en el que la diversión está asegurada.

Edita: SANTURTZI udala · ayuntamiento

Produce: MIC Edizioak
www.editorialmic.com

KONTZERTU BIKOITZA
CONCIERTO DOBLE

UZTAILAK 15 JULIO

22:30
Lekua/Lugar: Arrantza Portua/Puerto Pesquero

JANUS LESTER

ITSAS BIDAIA MUSIKALA, ARRANTZA-PORTUAN AMARRATZEN DUENA DANTZA-PISTA BIHURTZEKO

Janus Lesterek "Ez gaitzala loak harrapatu" diskoa aurkeztuko digu, bizitzaren zuri-beltzekin jolasten den lana, baina batez ere tarteko grisekin. Dantzarako diren erritmo batzuk geldoagoak diren beste batzuekin tartekatzen ditu, baina beti baikor.

Jokin Pinatxo Beratik dator ezohiko ahots berezi batekin. Sinkopaturiko erritmo anitzez, arima beltzez, elektronikoz edo funkiz. 80ko edo 90eko hamarkadako dantzaren oinordeak, baina moldaketa garaikideaz hornitua. Jokini berari bere banda handia gehitu behar zaio: Garazi Esnaola (Teklatua), Mattin Arbelaitz (Bateria), Julen Suarez (Tronpeta), Andoni Arriola (Tronboia), Ane Bastida (Baxua) eta Javier Echarri (Gitarra).

JANUS LESTER

UN CRUCERO MUSICAL QUE AMARRA EN EL PUERTO PESQUERO PARA CONVERTIRLO EN UNA PISTA DE BAILE

Janus Lester presenta su disco 'Ez gaitzala loak hartu', un trabajo en que juega con los blancos y negros de la vida, pero sobre todo los grises intermedios. Mezcla ritmos bailables con otros más lentos, aunque siempre con optimismo.

Jokin Pinatxo llega desde Bera con una voz insólita, especial, y una amalgama de ritmos sincopados, con alma negra, electrónica o funk, herederos del baile de los 80 o 90, pero con arreglos completamente originales y contemporáneos. Al propio Jokin se le suman su gran banda Garazi Esnaola (Teclado), Mattin Arbelaitz (Batería), Julen Suarez (Trompeta), Andoni Arriola (Trombón), Ane Bastida (Bajo) y Javier Echarri (Guitarra).

OIHAN VEGA

Erreferentziazko DJ bat iritsiko da agertoki nagusira. 15 urte baino gehiagoko esperientzia atzean duela, Oihan Vega DISKOFESTA ospetsuarekin dator belaunaldi ezberdinetako milaka pertsona dantzan jartzera. Show indartsua, bizia eta dinamikoa izango da, eta mota guztietako musikaz gozatu ahal izango da, modaz inoiz pasatzen ez diren kantu klasiko handiak berreskuratuz.

OIHAN VEGA

Uno de los DJs de referencia aterriza en el escenario central. Con más de 15 años a sus espaldas, Oihan Vega, llega con su famosa DISKOFESTA para hacer bailar a miles de personas de diferentes generaciones. Un show potente, vivo y dinámico, en el que se podrá disfrutar de todo tipo de música recuperando también grandes temas clásicos que nunca pasan de moda.

HERRIKO TALDEAK / GRUPOS LOCALES
Kontzertu HIRUKOITZA / Concierto TRIPLE

UZTAILAK 15 JULIO

22:00
Lekua/Lugar: Pantalanak/Pantalanes

AD ETERNUM

Talde santurtziarra 2015eko bukaeran sortu zen, Fullmetal Band tributu taldeko kideen eskutik. Autoprodukzio bat editatu (sei bertsioko cd bat) eta METALLICAren (Enter Sandman) kantuaren bideo klip bat editatu ondoren, agertoki gehienak zeharkatzera abiatu ziren.

Taldea Metaleko bost borrokalarik osatzen dute: Patxa (ahotsa), Txutxi (gitarra), Sergio (gitarra eta koroak), Bobby (baxua eta koroak) eta Argoitz (bateria). Agian batzuek Full Metal Band bertsio taldea bezala identifikatuko dituzte oraindik, baina errealitatea da euskal promesa handienetako baten aurrean gaudela.

AD ETERNUM

Este grupo santurtziarra nace a finales del 2015, de la mano de los componentes de la banda tributo Fullmetal Band, donde tras editar una autoproducción, consistente en un cd con seis versiones, y editar un videoclip del tema de METALLICA (Enter Sandman), se lanzan a la carretera a recorrer la mayoría de los escenarios.

La formación compuesta por cinco luchadores del Metal -Patxa (voz), Txutxi (guitarra), Sergio (guitarra y coros), Bobby (bajo y coros) y Argoitz (batería). Quizás algunos les identifiquen aún como el grupo de versiones Full Metal Band, pero la realidad es que nos encontramos ante una de las grandes promesas vascas del estilo.

ALL THIS CHAOS

2019ko azaroan sortu zen All This Chaos talde bizkaitarra, zeinaren kideak beste talde batzuetatik baitatoz, besteak beste, honako hauetatik: MetalMilitia, Ikaran, Salyva, Bultaco, Dabelyu edo Hush. Taldekideak Joxean Zurutuza (gitarra), Javi Cantero (gitarra), Ángel Santamaria (ahotsa), Oinatz Bilbao (baxua) eta Euge Duran (bateria) dira. Gaur egun All This Chaos taldea lehenengo Epa ari da aurkezten, Lie To Your Mind izenekoa; lau kantu horietan, metalaren barruko generoen aniztasuna islatzen da.

ALL THIS CHAOS

En noviembre del 2019 nace All This Chaos, grupo bizkaitarra que viene de diversos grupos tales como MetalMilitia, Ikaran, Salyva, Bultaco, Dabelyu, Hush entre otros y actualmente formada por Joxean Zurutuza (guitarrista), Javi Cantero (guitarrista), Ángel Santamaria (vocalista), Oinatz Bilbao (bajista) y Euge Duran (batería). Actualmente All This Chaos se encuentra presentando su primer Ep de título Lie To Your Mind, cuatro temas donde la diversidad de géneros, dentro del metal, se verá plasmada en ellos.

BILONGO L.T

Talde honek errepertorio latinoko melodia klasikoak hartu ditu (son kubanoa, guaracha, boleroa, tangoa, kopla) eta surf ohola baten gainean igo ditu Kalifornian, Mississippiko deltatik eraman, Louisianako zingiretan sartu eta, bukatzeko, ezkerraldeko garaje batean sartu ditu. Bilongoren errepertorioaren barruan haiek sortutako gaiak ere entzuten dira.

BILONGO L.T

Una formación musical que ha cogido las melodías clásicas del repertorio latino (son cubano, guaracha, bolero, tango, copla) y tras subirlas en una tabla de surf en California, las pasea por el delta del Mississippi, las mete en los pantanos de Luisiana y termina dejándolas en un garaje de la margen izquierda. En la misma dinámica también suenan temas propios dentro del repertorio de Bilongo.

LUZ CASAL

UZTAILAK 16 JULIO

23:00
Lekua/Lugar: Arrantza Portua/Puerto Pesquero

EPELA EDO HASERRE, BETI EKLEKTIKOA, GALIZIAKO ARTISTAK BERE DISKORIK INTIMO ETA SAKONENA AURKEZTEN DU

